

# Zesar

eta mahai-futbol magikoa  
y el fútbol mágico

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2015

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Un registro bibliográfico de esta obra puede consultarse en el catálogo de la red *Bibliotekak* del Gobierno Vasco: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia / Edición: 1. abuztua 2015 / 1ª agosto 2015

Ale kopurua / Tirada: 500 ale / ejemplares

© Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza.

Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Administración de la Comunidad Autónoma Vasca.

Departamento de Educación, Política Lingüística y Cultura

Argitaratzailea / Edita:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

C/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Itzulpenak / Traducciones:

Euskara / Euskera: **Pako Eizagirre**

Gainbegiratzea / Supervisión:

M<sup>a</sup> Pilar Botella. Neuropediatra. Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu

Neuropediatra. Hospital Universitario Araba, Txagorritxu

Lourdes Guerra. Neurofisiologoa. Arabako Unibertsitate Ospitalea, Txagorritxu

Neurofisióloga. Hospital Universitario Araba, Txagorritxu

Diseinu grafikoa / Diseño gráfico: Miren Unzurrunzaga Schmitz

Inprimaketa / Impresión: Graficas Lizarra, S.L.

Lege gordailua / Depósito legal: VI-663/2015



# Zesar

eta mahai-futbol magikoa  
y el fútbol mágico



Testuak / Textos: [Ana García de Motiloa](#)

Irudiak / Ilustraciones: [Josean Morlesín](#)



Otsailaren bata zen. Aitorrek egutegiari lehenengo orria kendu, harekin pilota bat egin eta... Popiren ahoan saskiratu zuen. Popi txakur txiki polita zen oso, Aitorren inguruan beti saltoka ibiltzen zena, arto krispeta erraldoi bat balitz bezala.

Popik, bitan pentsatu gabe, paperontzira bota zuen pilota hura.

—Laster hamaika urte beteko ditut —esan zion Aitorrek txakurrari—, sarritan berarekin hitz egiten baitzuen.

Larunbata zen. Aitorrek begiratu zuen bere agenda eta «etxeko lanak» zioen hura zirriborratuta zeukala ikusi zuen. Gustuko zuen gauzak ondo antolatzea eta lanak azken unerako ez uztea. Lasaiago sentitzen zen horrela, lanak berehala eginda. Ondoren, agendak zekarrena irakurtzen jarraitu zuen: «Mahai-futbol partida bat jolastu Zesarrekin».



Día uno de febrero. Aitor arrancó la primera hoja del calendario, hizo una pelota con ella y la encestó en...la boca de Popi, un precioso caniche que siempre estaba saltando a su alrededor como si fuera una palomita de maíz gigante.

Popi, ni corto ni perezoso, la puso en la papelera.

—Dentro de poco cumpliré once años —le dijo Aitor al perro, pues a menudo hablaba con él.

Era sábado, Aitor consultó su agenda y vio que la tarea de «hacer los deberes» había sido tachada. Él era muy organizado y le gustaba no dejar las cosas para el final, así podía estar más tranquilo. Siguió leyendo: «Jugar una partida de fútbolín con César».

Une hartan txirrina jo zuten etxeko atean. Itxi zuen agenda eta atea irekitzera joan zen Aitor. Zesar zen, bere lagun mina, eta elur malutez estalia zuen zirarekin zetorren. Izan ere, elurra mara-mara ari zuen une hartan.

Aitorrek goiko bere gelara gonbidatu zuen Zesar. Hango leihotik ederki ikusten zen nola ari zen zuriz margotzen paisaia.

—Elurra ari duenean niri zera iruditzen zait, elur malutak euli zuriak direla, jirabiraka hegan —esan zuen Zesarrek.

—Bada, niri iruditzen zait lainoak forespenez osatuak daudela eta desegiten ari direla —esan zuen Aitorrek.

—Bada, nik pentsatzen dut pitufoz betetako puxika bate-tik erortzen ari diren karkaxak direla maluta horiek —bota zuen korridoretik ozen Danielek, Aitorren anaia txikiak.

Une hartan, hiru bider egin zuen zaunka Popik, Danieli «ai, zein astakiloa zaren!» esan nahi izan balio bezala.

—Nire irudimenerako, berriz, makalaren hazi hegariak dira elur malutak, udaberrian, hautsez estalirik, airean hegan dabiltzanak —esan zuen Maialenek ate ondotik, betaurrekoak sudur gainean ondo kokatzen zituen bitartean.

En aquel momento sonó el timbre, Aitor cerró su agenda y fue a abrir la puerta. Era César, su gran amigo, venía con su chubasquero cubierto de nieve. En efecto, nevaba copiosamente.

Aitor invitó a César a subir a su habitación. Desde el piso de arriba se podía ver a través de la ventana cómo el paisaje exterior se iba pintando de blanco.


—A mí, cuando nieva, me parece que los copos son como moscas blancas revoloteando por el aire —dijo César.

—Pues a mí me parece como si las nubes fueran de forspan y empezaran a deshacerse —dijo Aitor.

—Pues yo pienso que son escupitajos que caen desde un globo lleno de pitufos —dijo Daniel, el hermano pequeño de Aitor, desde el pasillo.

En aquel momento Popi ladró tres veces como si quisiera decirle a Daniel: «¡mira que eres bruto!»

—Yo imagino que los copos de nieve son como las semillas voladoras del chopo,



—Hara, hitz egin du gure mari jakintsuak! —bota zion aurpegira Danielek.

Maialen Aitorren arreba ertaina zen, hura baino urtebete gazteagoa.

Maialen Zesarren oso gustukoa zen. Okerrena zen neska-txak begiratzen zion bakoitzean Zesar gorri-gorri jartzen zela eta ezin zuela disimulatu.

Danielek, hiru anaietan bihurrienak, bazekien nola jo adarra Zesarri:

—Xake-mate! Zesarrek bi masailetan, bi tomate!

Hura entzun bezain pronto, sutan jartzen zen Zesar, oso haserre, eta mehatxu egiten zion ukabila itxita. Danielek ihes egiten zuen ukabil hura ikusten zuenean, baina, hala ere, garbi entzuten zituen Zesarren hitzak:

—Piti-pati, piti-pati, Danieltxo, puzkertu eta kakati!

Pazientzia galtzeko zorian, Danielekin zituen tirabirak alde batera utzita, zera esan zien lagunei:

—Aizue, goazen mahai-futbol horretan partida bat jolastera, gero herrira joan behar dut-eta aitona-amonak ikustera!

cuando en la primavera se recubren de pelusilla y vuelan por el aire. Se llaman vilanos, lo he leído en un libro —añadió Maialen desde la puerta ajustándose sus gafas en la nariz.

—Ya habló la empollona —dijo Daniel imitando su gesto con un dedo en el entrecejo.

Maialen era la hermana mediana de Aitor, tenía un año menos que él.

A César le gustaba esta niña de manera especial, lo malo era que siempre que ella le miraba él se ponía colorado y no lo podía disimular.

Daniel, el más travieso de los tres hermanos, le solía decir:

—Jaque mate, César se ha puesto colorado como un tomate.

Al oír esto, César se enfadaba mucho, como se suele decir, montaba en cólera y le amenazaba con el puño cerrado. Daniel huía cuando veía aquel puño y podía escuchar las palabras de César:

—Petas, zetas, pedorretas, Daniel es un «caguetas».

—Oye, vámonos ya a jugar la partida de fútbolín —dijo César impaciente y saliendo de sus recuerdos de los en-

Hala, bi lagunak etxeko atikora igo ziren. Zesarri gero eta astunago egiten zitzaion eskailerak igotzea. Haien atzetik igo ziren Daniel eta Maialen. Egun horretan laurek egin zuten jolasean.

Elurra mara-mara ari zuen artean, eta primeran ikusten zuten sabai-leihotik.

—Eguraldi honekin ez duzu aitona-amonen etxera joateko modurik izango, baldin eta ez bazoaz lera batean —bota zion Aitorrek Zesarri, serio samar jarrita.

—Aizu, primeran egongo litzateke lera batean bidaia-tzea —erantzun zion Zesarrek. Horrela ez nuke oinez joan beharrik izango, aspaldi honetan gero eta gehiago kostatzen zait eta. Gero eta ahulago sentitzen ditut nire hankak.

—Niri ere gertatzen zait batzuetan, baina nire amak dio hazten ari naizelako dela —animatu zuen Maialenek.

—Bai, baina niri batzuetan bakarrik ez, denbora osoan gertatzen zait —kexatu zen Zesar, kezka aurpegia jarrita.

—Bada... nire amonak dio espinaka asko jan behar dela sasoiari egoteko —sartu zen tartean Daniel, harro harro.

—Beno, has dezagun partida, ikusiko duzu gure «koltxoneroek» zer-nolako jipoia emango dieten «cule» horiei —hasi zen txantxetan Aitor.

fados con Daniel. Tengo que ir al pueblo a visitar a mis abuelos.

Los dos amigos subieron al ático de la casa. A César le costaba cada vez más subir las escaleras. Tras ellos subieron Daniel y Maialen. Ese día jugarían los cuatro.

Desde la claraboya todos podían ver cómo seguía nevando sin parar.

—Pues a este paso no podrás ir al pueblo a visitar a tus abuelos, a no ser que te vayas en trineo —le dijo Aitor a César poniéndose muy serio.

—Estaría «guay» viajar en trineo —dijo César— así no tendría que caminar pues desde hace tiempo cada vez me cuesta más. Siento cómo mis piernas están cada vez más débiles.

—A mí también me ha pasado eso alguna vez, pero dice mi madre que es porque estoy creciendo —sentenció Maialen.

—Sí, pero a mí ya me pasa eso todo el tiempo, no una vez —dijo César con tono serio.

—Pues mi abuela dice que hay que comer muchas espinacas para ponerte fuerte —añadió Daniel chuleando un poco.





—Mundu mundialeko onenak gara gu —egin zuen oihu Danielek, garaipenaren ikurra eginez.

—Hori ikusi egin behar! —sartu zen Zesar, bularra puztuta, jakinda egun horretan bere jolaskidea Maialen izango zela.

Partida oso bizia izan zen. Baloi txikia han ibili zen hara eta hona futbol zelaiaren, soldadutxoak balira bezala le-  
rrokatuta zeuden jokalariek astinduta.


Halako batean, koltxone-  
roen atezainak indartsu  
atera zuen baloia, eta, kon-  
trako erdilariaren gainetik  
pasa ondoren, aurrelarien  
aldera iritsi zen.

Handik, atera jo zuen joka-  
lari batek. Atezain trebeak  
hanka puntaz desbideratu  
zuen baloia zelaiaren erdi  
aldera. Hartu zuen jokalaria  
«cule» batek baloia, egin  
zuen dribling azkar bat eta  
aurrelarien aldera bidali  
zuen baloia. Hantxe

—Bueno, vamos a empezar la partida, ya verás como nuestros «colchoneros» les ganan a vuestros «culés» —bromeó Aitor.

—Somos los mejores del mundo mundial —añadió Daniel formando dos uves con los dedos.

—Eso está por ver —replicó César sacando pecho delante de Daniel y animado por Maialen que sería su pareja de juego aquel día.



El Partido estuvo muy animado. El diminuto balón no cesaba de rodar por el campo golpeado por los pequeños jugadores alineados como si fueran los soldados de un ejército.

En un momento determinado, el portero de los «colchoneros» golpeó el balón que sobrepasó a la media «culé» y llegó a la delantera. Desde allí, un jugador chutó a puerta. El bravo portero rechazó el balón con un puntapié y lo hizo llegar a la media

zegoen Mesini zain. Gelditu baloia, jaurtiketa indartsua eta kolokatua egin, eta zutoin ondotik sartu zen ate barrura baloia. GOOOOL! GOOOOL! Izugarrizko gola!

Hauxe izan zen partidaren azken emaitza: 4 eta 2, katalanen alde.

Aitorrek amorru handia hartzen zuen galtzen bazuen, baina, hala ere, bostekoa emanda zoriondu zituen laguna eta bere arreba Maialen. Horrek esan nahi zuen bazekiela porrotak onartzen.

Danielek marmarka alde egin zuen handik. Popi txakurtxoak atzetik jarraitu zion saltoka, krispetak zartaginean ibili ohi diren bezala.

—Badirudi ez duela elurrik ari —komentatu zuen Zesarrek.

—A, bai! Halaxe da! Joan dira makalaren hazi hegalariak! —gaineratu zuen Maialenek.

Handik gutxira, eskailerak jaisten hasi ziren Zesar, Aitor eta Maialen. Zesarri izugarri kostatzen zitzaion eskailera maila haiek jaistea.

—Ikusten al duzue? Hau ez zait gertatzen noizean behin, hau egunero gertatzen zait, eta nire hankak indarrik ez ba-

del equipo «culé». Uno de sus jugadores, con un dribling, pasó a la línea delantera. Justo desde aquel lugar, Mesini lanzó un gran chute que se coló a un lado del portero y marcó ¡GOOOLLL!

Final del partido, 4-2 a favor de los «culés».

A Aitor no le gustaba nada perder pero acabó chocando la mano con su amigo y con su hermana. Eso significaba que sabía aceptar la derrota.



Daniel se fue de allí refunfuñando. Popi le seguía, dando saltos como las palomitas en la sartén.

—Parece que ha dejado de nevar —dijo César.

—¡Ah, sí!, ya no hay vilanos ahí fuera —añadió Maialen.

Aitor, Maialen y César comenzaron a bajar las escaleras. A César le costaba mucho ir de un escalón a otro.

—¿Lo veis?, esto no me pasa una vez, me pasa todos los días y siento como si mis piernas no fueran fuertes y les

lute bezala sentitzen ditut, gorputzari eusteko kapaz ez balira bezala —esan zuen serio Zesarrek, kezka aurpegia jarrita.

Hiru lagunak, une batez, zortzigarren eskailera mailan geratu ziren atsedena hartzen. Hamazazpi eskailera maila ziren guztira.

—Nik ez dakit zer gertatzen zaidan, inork ez dit ezer esaten, eta nik jakin beharra daukat. Gau askotan negar egiten dut amorruren amorruez, eta burkoari kolpeka aritzen naiz. Eta ez da hori okerrena, okerrena da oso gaizki portatzen naizela nire gurasoekin, oso modu itsusian erantzuten diedala, eta oihuka. Gero, bai, gero damutzen naiz, baina... Gutxienez, norbaitek azalduko balit zergatik gertatzen zaidan gertatzen zaidana! Nik ongi egon nahi dut, eta futboleko egiteko gai izan.

Aitor lagunaren ondoan zegoen serio-serio. Jarri zuen eskua Zesarren sorbalda gainean eta honela esan zion:

—Zesar, ni beti zure ondoan egongo naiz, laguntzeko beti prest!

Maialenek ere Zesarren sorbaldan jarri zuen bere eskua, eta mutikoa, beti bezala, apurtxo bat gorritzen hasi zen. Baina, tira, oraingoan gutxixeago, Daniel ez baitzebilen han inguruan «Xake-mate...» esanez adarra jotzen hasteko.

costara sostenerme —dijo César con un tono de preocupación.

Los tres amigos se sentaron un momento a descansar en la octava escalera. Había en total dieciséis.

—Yo no sé qué me pasa, nadie me dice nada y yo necesito saberlo. Muchas noches lloro de rabia y le doy golpes a la almohada y, lo que es peor, me porto muy mal con mis padres pues les contesto de malas maneras y les hablo a gritos, luego me arrepiento. Si al menos alguien me explicara por qué me pasa esto... Yo quiero estar bien y poder jugar al fútbol.

Aitor permaneció muy serio al lado de su amigo, le pasó una mano por encima del hombro y le dijo:

—César, yo siempre estaré a tu lado para ayudarte.

Maialen también puso su mano sobre el hombro de César y este empezó a ponerse rojo como siempre, bueno, quizá un poco menos pues Daniel no andaba por allí cerca diciendo la famosa frasecita: «Jaque, mate...».

Poco después, Maialen le dijo:

—Aunque no puedas correr y moverte como antes te vamos a querer igual.

Oraindik besoa sorbaldatik kendu gabe, honela mintzatu zitzaion Maialen:

—Nahiz eta lehen bezala mugitzerik eta korrika egiterik ez izan, berdin maiteko zaitugu.

Masailean musu azkar bat eman zion, eta alde egin zuen handik eskailera mailak binaka jaisten zituen bitartean.

Zesarri izugarri gustatu zitzaion hitz haiek entzutea, eta, are gehiago, musu hura masailean sentitzea.

Une hartan, oso garbi entzun zuen Zesarrek sukalde aldetik zetorren Danielen ahotsa:

—Xake-mate! Zesarrek bi masailetan, bi tomate!



A continuación le dio un beso rápido en la cara y se fue de allí saltando las escaleras de dos en dos.

A César le gustó mucho oír aquello y más recibir el beso.

A Daniel se le oyó gritar desde abajo:

—Jaque, mate, César se ha puesto rojo como un to...

—Har ezazu behingoz esnea, Daniel, hoztu egingo zaizu eta! —egin zion errieta amak sukalde barrutik.

Handik gutxira, ateko txirrina jo zuten, eta Popi zaunka eta zaunka hasi zen urduri.

Zesarren aita zen, eta semearen bila zetorren mutikoa herrira eramateko.

Beheko solairura iristeko falta ziren zortzi eskailera mailak gero eta zailtasun handiagoarekin jaitsi zituen Zesarrek. Agurtu zuen aita, eman zion bostekoa Aitorri, eta auto aldera abiatu zen.

Aitorrek leiho atzetik jarraitu zuen Zesarren ibilera: hanka puntetan zihoan, asko kostatzen zitzaion oina lurrean pausatzea. Agian egia izango zen lehentxeago lagunei kontatu ziena. Utzi leihotik begiratzeari eta bere gelara joan zen. Ohea egin, gauzak apurtxo bat txukundu, gela aireztatu eta oso gustukoa zuen liburua irakurtzen jarri zen: «Zapelatz begiaren misterioa».

—Zapelatzaren begia futbolean erabiltzen den sistema informatikoa da baloiaren ibilbidea jarraitu ahal izateko. Horrela, epaileek zalantzazko jokaldietan erabaki zuzena hartu ahal izango dute —azaldu zuen Aitorrek, amak liburua zuen izenburuaren esanahiaz galdetu zionean.

—Tómate la leche de una vez, Daniel, se te ha quedado helada —le dijo su madre enfadada desde la cocina.

Poco después, el sonido del timbre de la puerta hizo que Popi comenzara a ladrar furioso.

Era el padre de César que venía a buscarle para ir al pueblo.

Cada vez con más dificultad, César bajó los ocho escalones que quedaban para llegar a la planta baja, saludó a su padre, se despidió de Aitor con otro choque de manos y se fue.

Aitor observó a través de la ventana cómo su amigo andaba de puntillas, le costaba mucho apoyar la planta del pie en el suelo, —quizá será por lo que nos ha contado— pensó. A continuación se fue a su habitación y, después de hacer la cama, ordenarla un poco y ventilarla, se puso a leer un libro que le gustaba mucho: «El misterio del ojo de halcón».

—El ojo del halcón es un sistema informático que se usa en fútbol para seguir la trayectoria del balón y que puede ser utilizado por los jueces para decidir sobre jugadas dudosas —explicó Aitor a su madre después de que esta le preguntara por el significado del título del libro.

—Seme! Bai argia eta azkarra zarela gauzak azaltzen, liburu ireki bat ematen duzu! —esan zion amak, pozez gainezka, harro.

—Aitorrek liburu aurpegia du, Aitorrek liburu aurpegia du —hasi zen oihuka sukaldetik, esnea hartzen ari zen bitartean.

Aitorrek gorrarena egiten zuen. Ezin zuen burutik kendu Zesar laguna. Begiratu zuen leihotik, eta paisaia aldatua ikusi zuen. Une hartan gogor ari zuen euria, eta desagertzen ari zen lur gaineko elur zuria

Harantzago begiratu zuenean, han ikusi zituen Zesar eta gurasoak autoan sartzen, elurraren arazorik gabe, herri-rako bidea hartzeko.

Atzeko eserlekuan eserita, zuhaitzen adarrak gero eta zuriagoak ikusten zituen Zesarrek, eta une batez pentsatu zuen bera agurtzen ari zirela adar haiek, emeki-emeki mugitzen ziren bitartean. Begiak itxi, eta erdi lotan geratu zen.

Bien bitartean, Aitorren etxeko atikoan zerbait bitxia gertatzen ari zen.

Bat-batean, mahai-futboleko jokalaria berez hasi ziren mugitzen, inork mugitu gabe.

—Hijo, te explicas como un libro abierto —dijo la madre a Aitor con un gesto de satisfacción.

—Aitor tiene cara de libro, Aitor tiene cara de libro —repetía Daniel desde la cocina intentando tomarse la leche.

Aitor hacía como que no le oía. No dejaba de pensar en César, miró por la ventana y vio cómo la nieve que había caído sobre los campos estaba desapareciendo a causa de la lluvia que caía con fuerza en aquel momento.

Algo más lejos de allí, César y su familia pudieron coger el coche para viajar hacia el pueblo sin grandes problemas en la carretera.

Desde el asiento de atrás, César veía los árboles con sus ramas cada vez menos blancas, por un momento pensó que las movían para saludarle. Cerró los ojos y se quedó adormilado.

Mientras tanto, en el ático de la casa de Aitor estaba ocurriendo algo raro. Los jugadores del fútbolín se estaban empezando a mover por sí mismos, nadie los dirigía.

Los cuerpecillos diminutos y duros de estos pequeños personajes se estaban volviendo blandos y a medida que esto sucedía iban tomando una temperatura corporal de

Pertsonaia txikitxo haien gorputz gogorrak eta ñi-miñoak biguntzen hasi ziren, eta gorputz-tenperatura 36°-koa zuten, normalean gizakiok duguna bezalakoa.

Pixkanaka, mahai-futboleko barra haietatik askatzen joan ziren denak; atezainak, atzelariak, erdilariak eta aurrelariak. Futbol zelaiaren erdian elkartu ziren, eta, segidan, zelaia uztea eta ganbarako zorura jaitea erabaki zuten. Beste leku batzuk ezagutu nahi zituzten. Jendearekin hitz egin eta erabakiak hartzeko gai izan. Horixe nahi zuten.

Zelaiaren hegaletik begiratu eta handik lurrerainoko altura ikusi zutenean, arriskutsua iruditu zitzairen handik salto egitea, eta denen artean beste irtenbide baten bila hasi ziren.

Azkenik, kamisetak erantzi eta horiek elkarrekin korapilatuz, soka antzeko bat egitea erabaki zuten. Sokaren mutur bat baloia ateratzen zen mahai-futboleko zulo borobilari lotuko zioten, eta, horrela, banaka-banaka jaitsiko ziren sokan behera, lurrera. Esan eta egin; di-da batean iritsi ziren lurrera jokalaria txikiak.



36° aproximadamente, la misma que tenemos los humanos normalmente.

Cuando todos ellos: porteros, defensas, delanteros y medios iban saliendo de la barra que los tenía aprisionados, se concentraron en el medio del campo y decidieron bajar del terreno de juego hasta el suelo del ático. Querían conocer otros espacios, hablar con los demás y decidir por ellos mismos.

Cuando se asomaron por los laterales del campo y vieron la altura que los separaba del suelo se dieron cuenta de que bajar desde allí con un salto sería peligroso, así que entre todos empezaron a buscar estrategias.

Al final decidieron quitarse las camisetas y anudarlas las unas con las otras. La primera iría atada al agujero circular por el que salía el balón, así formarían una especie de soga por la que podrían descender. Dicho y hecho, en un «plis-plas» se podía ver a los diminutos jugadores descendiendo hasta el suelo.



Lortu dugu! Lortu dugu! –egin zuen deiadar Mesini aurrelariak. Bera izan zen jaisten azkena, besteei baino zertxobait gehiago kostatu zitzaion eta.

Oso pozik zeuden denak, inoiz ez baitziren sentitu hain bizirik. Izan ere, nekatuta zeuden mahai-futbolean beti postura berean lotuta egoten. Haserre zeuden beti beste norbaitek mugitzen zituelako eta erabakitzen zuelako zer jokaldi egin. Askotan, gainera, itzulipurdika ibiltzen zituzten, ia zoratzeko moduan. Eskerrak, gutxienez, barra batera lotuta zeuden eta ezin ziren lurrera erori!

—«Ez da gaitzik onik ez dakarrenik» –esan ohi zuen horrelakoetan jokalaria koltxonero batek –alegia, zerbait txarra gertatzen zaigunean, izango da zerbait ona ere—gogoratzen zien beste lagunei.

Errefrau hura entzun zuenean, pentsakor gelditu zen Mesini, aspaldi ohartu baitzen bere hankak ez zirela jolaskideenak bezain gogorrak. Aske eta bizirik sentitzeko aukera zuen, baina, era berean, gero eta garbiago ikusten zuen ezin zuela besteek bezala pausorik eman eta besteek bezala korrika egin.

Mahai-futboleko pertsonaia txikiak hara eta hona sakanatu ziren ganbaran, abentura bila. Mesiniren ondoan

—Lo hemos conseguido –gritó alegre el delantero Mesini que fue el último en llegar al suelo—. Le costó un poco más que a los demás.

Todos estaban muy contentos pues nunca hasta entonces habían podido sentirse vivos. En realidad, estaban cansados de estar siempre en una postura rígida y de que alguien decidiera por ellos qué jugada hacer o cómo moverse por el terreno de juego. Hasta incluso a veces, los que les dirigían les daban miles de volteretas que les hacían terminar mareados aunque, como estaban sujetos a la barra, no se podían caer al suelo.

—«No hay mal que por bien no venga» –solía decir en estos casos un jugador «colchonero»–, o sea que por cada cosa mala que nos ocurra, siempre habrá una buena –seguía explicándoles a los demás.

Cuando oyó este refrán, Mesini, se quedó pensativo pues hacía tiempo que sentía que sus piernas no estaban tan duras como las de sus compañeros de juego.

Ahora que podía sentirse vivo se daba más cuenta aún pues le costaba caminar e incluso correr como los demás.

Los pequeños personajes del fútbolín se fueron dispersando por el ático en busca de aventuras, al lado de Mesini

Jordi Albi geratu zen, «cule» ekipoko defentsa, jolaskidea izateaz aparte Mesiniren lagun handia.

Halaberrez, baina kontua da Jordi Albiren aita sendagilea zela, eta haren kontsultara joan zela Mesini osasun-azterketa bat egitera.

—Zergatik gertatzen ote zait hau? —galdetu zion beste behin ere Mesinik lagunari.

—Lasai. Neuk lagunduko dizut —esan zion Jordi Albik, praktetako atzeko poltsikotik mugikorra ateratzen zuen bitartean—, Skype erabiliz, aitarekin harremanetan jarriko zaitut. Agian zerbait argituko dizu berak.

Handik gutxira, pantaila txikiaren bestaldean zegoen Albiren aita, sendagile oso ospetsua.

Albik lehendik ere ondo zekiena kontatzen hasi zitzaion Zesar sendagileari.

Sendagilea pentsakor gelditu zen une batean, eta honela erantzun zion ondoren:

ni se quedó Jordi Albi, un defensa «culé», que además de compañero de juego, era un gran amigo.

Daba la casualidad de que el padre de Albi era médico y Mesini había acudido a su consulta para hacerse un reconocimiento.

—¿Por qué me pasará esto? —le preguntó Mesini a su amigo.

—Yo te puedo ayudar, —le dijo Albi sacando su teléfono móvil del bolsillo trasero de su pantalón —voy a contactar con mi padre por Skype, a lo mejor te puede decir algo.

Poco después, al otro lado de la pequeña pantalla estaba el padre de Albi, un médico muy famoso.

César comenzó a contarle lo que su amigo Albi ya sabía.



—Begira, Mesini, bizitzaren une batean gutako edonor gaixotu daiteke. Batzuetan, gaixoaldiak laburrak izan ohi dira, eta sendatu egiten dira. Beste batzuetan luzeagoak izaten dira gaixoaldiak, eta horiek ere sendatzen dira. Baina beste batzuetan baliteke ez sendatzea, eta orduan gaixotasunarekin bizitzen ohitu behar dugu. Pertsona asko ari da lan eta lan luzaroan irauten duten gaixotasunak aztertzen eta sendatzeko moduak aurkitzen. Horretarako, ikerketa asko egiten dituzte, eta baita hainbat proba ere pazienteekin.

Eta honela jarraitu zuen sendagileak:

Hauxe jakin behar duzu, oso garrantzitsua da eta: **INORK EZ DU GAIXOTASUN BAT EDUKITZEAREN ERRURIK. EZIN DUGU INOR GAIZKI TRATATU GAIXOTASUN BAT DUELAKO.**

—Eta, zer gertatzen da norbaiti gaixotasun bat duela esaten diozunean? –galdetu zion Mesenik.

—Hasiera batean, gaixoak amorrua, errua, beldurra, tristezia eta horrelakoak sentitzen ditu. Sentimendu horiek guztiak **EMOZIOAK** dira, eta oso garrantzitsua da kanpora ateratzea.

El doctor se quedó pensativo durante un rato y, a continuación respondió:

—Mira, Mesini, en un momento de nuestra vida todos podemos enfermar, a veces las enfermedades son cortas y se curan, otras veces pueden durar más y también se curan pero en otras ocasiones puede que no se curen y tengamos que vivir con ellas. Cuando duran y duran, muchas personas trabajan mucho para ayudar a descubrir la forma de curarlas. Para ello realizan muchas investigaciones y hacen pruebas con los pacientes.

Y añadió:

—Es muy importante que sepas esto: **NADIE TIENE LA CULPA DE TENER UNA ENFERMEDAD. NO TENEMOS QUE TRATAR MAL A NADIE POR TENERLA.**

—Y ¿qué pasa cuando usted le dice a alguien que tiene una enfermedad? –le preguntó Mesini.

—Al principio es normal que el enfermo sienta rabia, culpa, miedo, tristeza... Todos estos sentimientos se llaman **EMOCIONES** y es muy importante sacarlas fuera de nosotros.

—Eta, nola egiten da hori? –galdetu zion, berriz ere, Mesinik.

—Modu asko daude emozioak kanporatzeko: hitz egin-da, idatzita, marrazkien bidez, jolasaren bidez... –esan zion sendagileak. Eta, segidan, hauxe gehitu zuen:

—Sentimendu horiek baretzen direnean, ona da gustuko duzun jarduera bat aurkitzea. Adibide bat jarriko dizut; bannen nik paziente bat oso kirolari ospetsua eta marraztea asko gustatzen zitzaiona. Istripu bat izan zuen, eta gurpila-ulkian gelditu zen, hankak eta eskuak mugitzeko ahalmenik gabe. Handik denbora batera, ahoarekin margotzen hasi zen. Niri izugarri gustatzen zaizkit haren margoak. Erakusketa batean ikusi nituen, eta erosi ere erosi nion bat.

—Doktore jauna, eta zergatik sentitzen ditut nire hankak gero eta ahulago? –galdetu zion Mesinik hain atsegina zen sendagileari.

—Begira, gene akastun batek sortzen dizun gaixotasuna daukazu. Gene horrek erraz hondatzen ditu giharretako zelulak. Hobeto uler dezazun –jarraitu zuen sendagileak–, giharrek desordenatu egiten dira, eta, ondorioz, ahuldu eta alferatu egiten dira. Hori gertatzen denean, giharrek ez dute produzitzen distrofina izeneko proteina bat, giharrek sano egoteko beharrezkoa dena.

—Y ¿cómo se hace? –volvió a preguntar Mesini.

—Hablando, escribiendo, dibujando, jugando,... existen muchas formas para sacarlas fuera –le dijo el médico. A continuación añadió:

—Cuando esos sentimientos pasan, es bueno buscar una actividad que a uno le guste hacer. Por ejemplo, a uno de mis pacientes, un deportista de fama, le gustaba mucho dibujar. Sufrió un accidente y se quedó en una silla de ruedas, sin poder mover las manos ni las piernas. Pasado un tiempo, empezó a pintar con la boca. A mí me encantan sus cuadros, los vi en una exposición de pintura e incluso le compré algunos.

—Doctor, y ¿por qué siento que mis piernas están cada vez más débiles? –volvió a preguntar Mesini al amable médico.

—Porque tienes una enfermedad que es causada por un gen defectuoso que hace que las células de los músculos se dañen con facilidad. Para que me entiendas mejor –prosiguió el médico –es un desorden que aparece en los músculos, por eso se debilitan, se vuelven vagos y no producen distrofina, que es una proteína que ayuda al músculo a estar bien.


—Gaixotasun honen tratamendurako badaude botika batzuk, kortikoideak. Baina fisioterapia eta igeriketa ere oso garrantzitsuak dira.

Une hartan, bat-batean, eten egin zen komunikazioa, bateriarik gabe gelditu baitzen Jordi Albiren telefonoa. Ez zion denborarik eman aita agurtzeko.

Sendagilearekin hitz egin eta gero, barruan zituen kezka, beldurra eta amorrua baretzen joan ziren, eta Mesiniren aurpegiak itxaropena islatzen zuen; igeriketa oso gustukoa zuen, primeran pasatzen zuen irakurtzen, baita musika entzuten eta lagunekin solasean ere. DENA EZ ZEN FUTBOLA MUNDUAN.

—Beharbada, atsegin ditudan hainbat gauza ezin izango ditut egin, baina bai beste asko eta asko —pentsatu zuen bere baitan Mesinik.

—Aitor, jokatuko al dugu partida bat? —entzun zen Danielen ahotsa beheko pisuan.



—Para ayudar a los músculos en su debilidad —prosiguió el doctor— existen unos medicamentos que se llaman corticoides, también es muy importante la fisioterapia e incluso la natación.

En aquel momento se cortó la comunicación pues la batería del teléfono de Albi se había agotado. No le dio tiempo a despedirse de su padre.

Después de escuchar al médico, la cara de

Mesini que al principio expresaba preocupación, miedo y rabia, se fue iluminando pues a él le gustaba mucho la natación y también disfrutaba leyendo, escuchando música y hablando con sus amigos. TODO NO SE TERMINABA EN EL FÚTBOL.

—Quizá tenga que dejar de hacer algunas cosas que me gustan mucho pero podré hacer otras —pensó.

—Aitor, ¿jugamos una partida de fútbolín? —se oyó gritar a Daniel en el piso de abajo.

Danielen hitzak entzutean, jokalaria txikiak berriz ere mahai-futbol zelaira igotzen hasi ziren, lehenago jaisteko erabili zuten soka bera aprobetxatuz. Igotzen azkenak koltxoneroen atzelari bat eta «cule» ekipoko aurrelari bat izan ziren. Gorputza zuri-zuri zekarten biek, pintura pote batera erori baitziren. Hura arazoa haiena, Real Madrیدهkoak ematen zuten eta!

Mahai-futbolera igo eta berehala, kamisetekin egindako korapiloak askatzen hasi ziren denak. Denak ez, Mesini ezin izan zen besteekin batera igo. Kamiseta bat bota zioten behera, hotzik ez pasatzeko. Kamisetak 10 zenbakia zeraman.

Zuriz tindatuta zeuden bi jokalariek pinturaren gainetik jantzi zuten kamiseta, eta prakak buelta emanda jarri zituzten. Momentuz, horrela konpondu zuten arazoa, duxatuko ziren geroago.

Jokalaria txiki haiek hitz eman zioten Mesiniri esanez gauero jaitsiko zirela mahai-futbol zelaitik lurrera konpainia egitera eta eguneko gora-beherak komentatzera.

Mesini irakurtzera eta idaztera dedikatuko zen. Ikusia zuen ordurako ganbaran zegoen liburutegi txikia. Teleskopioaz baliatuz izarrei begira ere egongo zen, eta haiei buruzko istorioak idatziko zituen. Tarteka, zintzi-

Al oírlo, todos los pequeños jugadores se dispusieron a subir al campo del fútbol por donde habían bajado. Los últimos en subir fueron un defensa «colchonero» y un delantero «culé» que volvían completamente blancos pues se habían caído dentro de un bote de pintura. ¡Vaya problema que tenían ahora!, parecían del Real Madrid.

En un santiamén todos estaban arriba desanudando camisetas. Todos menos Mesini que no pudo subir. Desde arriba, le arrojaron su camiseta para que no se enfriara. Levaba el número 10.

Los teñidos de blanco se pusieron su camiseta sobre la pintura y le dieron vuelta al pantalón, así habían arreglado un poco el problema. Ya se ducharían más tarde.

Los pequeños jugadores quedaron con Mesini en que todas las noches bajarían desde el campo de juego del fútbol para hacerle compañía y hablar de cómo había ido el día.

Mesini se dedicaría a leer y a escribir. Había visto que en el ático había una pequeña biblioteca. También podría mirar las estrellas a través de un telescopio y escribiría historias sobre ellas. Y hasta daría golpes a un saco de boxeo que colgaba del techo. Él sabía bien que eso le ayudaba a sacar fuera su enfado.

lik zegoen boxeo zaku bati ukabilkada batzuk emango zizkion. Berak bazekien horrek guztiak asko lagunduko ziola barruko haserrea kanporatzen.

Sukaldaritza ere gustuko zuenez, berak prestatuko zien afaria beste guztiei. Ez zuen arazorik izango horretarako, ezagutzen baitzuen atikotik gertu zegoen despentsa. Gainera, jokalari txiki haiek ez zuten janari askorik behar.

Bat-batean, atikoko atea ireki zen. Mesini loreontzi baten atzean ezkutatu zen, eta lo gelditu zen handik gutxira.

Une hartan bertan, amak emandako astindu txiki batek esnatu zuen Zesar:

—Mugitu zaitetz, Zesar, iritsi gara eta. Zoaz aitona-amonak agurtzera.

—Utzi nazazu bakean! —egin zion oihu Zesarrek. Baina berehala gogoratu zuen sendagileak Mesiniri ametsetan esandakoa, eta azkar zuzendu zuen okerra.

—Barkatu, ama! Izan ere, horrela bat-batean esnatzeak ez dit batere graziarik egin —esan zion modu atseginean.

Hurrengo larunbata desberdina izan zen. Zesar, larunbatero bezala, Aitorren etxera joan zen mahai-futbolean egitera. Egun hartan, Maialen eta Daniel lehengusu-

Como le gustaba mucho cocinar, buscaría comida para preparar la cena para todos, no había problema pues cerca del ático había una pequeña despensa. Al fin y al cabo estos jugadores diminutos no necesitaban comer mucho.

De pronto se abrió la puerta del ático. Mesini se escondió detrás de una maceta y, poco después, se quedó dormido.

En aquel momento, César se despertó zarandeado por su madre que le dijo:

—Venga César, que ya hemos llegado al pueblo. Vete a saludar a los abuelos.

—Déjame en paz —le gritó César. A continuación recordó lo que el médico le decía a Mesini en su sueño y rectificó.

—Perdona, mamá, es que me ha sabido mal despertarme de repente —le dijo en tono de reconciliación.



lehengusinen etxera joanak ziren. Partida hastear zeudela, Aitor konturatu zen 10 zenbakia zuen jokalaria falta zela: Mesini. Eta, gainera, besteen artean bi jokalaria oso zurbil zeudela, zuri-zuri.

Aitor, belarriari hazka eginez, pentsakor jarri zen, ea zergatik ote zeuden bi haiek hain zuri eta non demontre ote zegoen falta zen jokalaria.

Zesarrek bazekien non aurkitu. Gogoak amorratzen zegoen hura ikusteko eta harekin luzaroan hitz egiteko.

Bai, familiaren eta lagunena ganean hitz egingo zuten, ikastetxeaz eta kirolaz. Baita bere gaixotasunaz ere.

Azken batean, bazirudien betidanik ezagutzen zutela elkar Zesarrek eta Mesinik.

Geroztik, ez ziren inoiz elkarrengandik aldentu.



El sábado siguiente fue diferente.

César se dirigió a casa de Aitor a jugar al fútbol, como todos los sábados. Aquel día Maialen y Daniel se habían ido a casa de sus primos.

Cuando estaban a punto de empezar, Aitor se dio cuenta de que faltaba un delantero con el número 10: Mesini. Y además de esto, dos de los jugadores estaban muy pálidos, casi blancos.

Aitor se rascó la oreja pensando por qué demonios estaban tan blancos los dos jugadores y dónde podría estar el jugador que faltaba.

César sabía dónde encontrarlo. Tenía muchas ganas de verlo. Hablaría con él y le contaría muchas cosas de su familia, colegio, amigos, deportes y hasta de su enfermedad.

En realidad, era como si César y Mesini se conocieran desde siempre.

A partir de aquel momento nunca se separaron.



